

MARIA MARKOTEGI SARIAK 2016 OINARRIAK

Parte hartzaileak: Lehiaketa honetan bizitokia edo ikastetxea Sakanan duten ikasleek har dezakete parte.

Sailak: Lehiaketak sail bakarra izanen du: ilustrazioa.

Kategoriak: Lehiaketak kategoria bakarra izanen du: LHko 3. eta 4. mailetako ikasleena.

Lanak aurkezteko epea: Lanak aurkezteko epea 2016eko martxoaren 18an bukatuko da, eguerdiko 15:00etan. Lehiaketan parte hartzeko lanak ikastetxeek aurkeztu ahal izanen dituzte ikasleen izenean. Lanak Sakanako Mankomunitateko erregistroan aurkeztuko dira, honako helbide honetan:

Sakanako Mankomunitatea

Uriz 32

31830 Lakuntza

Telefonoa: 948 464840

e-posta: euskara1@sakana-mank.com

Lanak aurkezteko modua: Lan guztiak goitzen batez izenpetuko dira. Aparteko gutun-azal batean egilearen datuak sartuko dira (izen-abizenak, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea, telefonoa, e-posta, ikastetxea, maila eta adina) orri batean idatzirik. Gutun-azalaren kanpoko aldean garbi adierazi beharko dira honako hauek: lanaren izenburua, egilearen izengoitia, saila eta kategoria.

Baldintzak:

- a) Hurrek Itziar Zubizarretak moldatutako *Katua, oilarra eta igitaia* ipuin herrikoia ilustratu beharko dute.
- b) Ilustrazioak A4 formatudun orrietan egin beharko dira. Margo mota eta teknika guztiak onartuko dira.
- c) Lanak bakarkakoak izanen dira. Ez dira taldekako lanak onartuko.
- d) Ikasle bakoitzak gehienez ere lan bat aurkez dezake.

Sariak: Aurkezten diren lan guztien egileek oroigarria jasoko dute. Guztira bi sari izanen dira.

| | | |
|------------------------------------|----------|-------------------------|
| LHko 3. eta 4. mailetako ikasleena | 1. saria | Pintura zorro osatu bat |
| LHko 3. eta 4. mailetako ikasleena | 2. saria | Pintura zorro osatu bat |

Sari banaketa: Sari banaketa ekitaldi publiko batean egingen da.

Argitalpena: Sakanako Mankomunitateak lehiaketara aurkeztutako lanak argitaratzeko eskubidea izango du, paperean zein webgunean, betiere egilearen izena adieraziz.

Epaimahaia: Epaimahaiko kideak Sakanako Mankomunitateko lehendakariak izendatuko ditu. Epaimahaia irakaskuntzan eta euskal kulturan nor diren lau kidek eta Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuko teknikari batek osatuko dute. Azken honek idazkari lanak egingen ditu. Aurkeztutako lanek gutxieneko mailarik ez badute, sariak eman gabe utzi ahal izango dira. Era berean, sariak ex aequo moduan banatu ahal izanen dira lan batzuen artean. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izanen da.

KATUA, OILARRA ETA IGITAIA

Munduan beste asko bezala, etxe batean senar-emaztea bizi zen haien seme-alabekin batera. Gurasoak hil zirenean, hiruak bakar-bakarrik bezain triste geratu ziren, aurrerantzean bere bizimoduari aurre egiteko alde egin beharko zuten eta ezer gutxi geratzen zen etxe hartan haientzat. Etxea miatzen hasi ziren atzera eta aurrera zer edo zer aurkituko zutenaren esperantzan, baina han katu bat, oilar bat eta igitai bat baino ez zeuden. Zaharrenak katua hartu zuen, oilarra bigarrenak eta gaztearentzat, berriz, igitai zahar bat geratu zen. Beren ondare eskasa hartuta abiatu ziren bada norbera bere bidetik, munduan aurrera, ea beste lurralde batean beren herrian ez bezala lana eta fortuna aurkitzen ote zuten.

Anaia zaharrenak bide ezkutu bat hartu zuen; basoak eta soroak gainditu zituen nekerik gabe, ilunabar batean muino baten gainera iritsi zen arte. Handik ikusten zen etxe txiki batera abiatu zen pozik. Poliki-poliki inguratu zen, baina gerturatu ahala bertatik ateratzen ziren oihuak, intziriak, garrasiak... gero eta argiago entzuten zituen.

Tentu handiz, atean zirrikitu bat zabaldu zuen, hango anabasa eta iskanbila!!! Gure mutila hura ikusita, barrez algaraka hasi zen lehertu beharrean... Arratoiez betea zegoen etxea, gainera gauero ateratzen ziren haien ezkutalekutik janari bila. Orduan etxeko guztiak saiatzzen ziren haiek harrapatzen, baina alferrik! Gero eta arratoi gehiago zeuden eta ezin zuten ezer egin haiek aldentzeko. Anaia zaharrenak berehala esan zien:

–Nik badut piztia txiki bat zaku honetan, zabaltzen badut ikusiko duzue nola joaten diren arratoi guztiak.

–Bai, zera!!!

Gazteak zakua zabaldu eta salto batean atera zen katua handik harramazkaka eta bultzaka arratoiak harrapatu nahian. Etxeko guztiak harrituta geratu ziren piztia hari begira, inoiz ez zuten horrelakorik ikusi.

–Saldu egiguzu piztia txiki hori, nahi adina urre emango dizugu trukean.– Kutxa txiki bat bete zuten urrez eta gure gaztea etxera bueltatu zen, lehen erabili zuen bidetik.

Bigarren arreba, etxetik haserre atera zen; marmarka eta purrustaka, bere buruari galdetzen zion zer egingo ote zuen bizi modua aurrera ateratzeko, oilar zahar baten jabe baino ez zela. Bidean aurrera, mendate handi bat zeharkatu zuen, goitik ikusi zuen etxe handi bat eta haren ondoko soroan jende mordo bana makila bat esku artean lurra jo eta lurra jo.

–Zertan ari zarete hor?

–Egunari deika, eguzkia esnatu eta guregana etortzeko.

–Zoazte lotara lasai, zaku honetan piztia txiki bat dut, eta hura kantari hasten denean “kukurruku eta kukurruku...”, jaiki eta etor zaitezte hona. Ikusiko duzue orduan eguzkia bueltan nola etortzen den.

Hala egin zuten eta dena bigarren arrebak esan bezala gertatu zen. Orduan erakutsi zien oilarra, eta jendea "Oooo, eta aaa" hasi zen piztiak liluratuta: haren luma koloretsuak eta kanta zorrotza baino gauza ederragorik ez zituen ezagutzen eta urre sail handiak eskaini zizkioten neskari oilarraren partez. Urrea hartuta bueltako bideari heldu zion, ibili eta ibili.

Hirugarren anaia atera zen etxe ondotik, bere igitaia esku-artean. Triste zihoan, goibel, aurrerantzean zer egingo ote zuen jakin gabe. Igitai bakar batez, zer egingo zuen? Lur sailik ere ez zuen hura erabiltzeko...

Bere gogoetan bilduta zihoala, hara non ikusten duen bide ondoan langile talde bat aizkoraz gari zurtoinak ebaki nahirik.

–Baina, zertan ari zarete? Aizkoraz ez duzue lortuko gari-enborrak ebakitzea, dena txikituko duzue eta garirik gabe geratuko zarete!!

–Bai, baina zer egingo dugu? Beste tresnarik ez dugu lan hau egiteko-eta.

Txikienak bere zorrotik atera zuen igitaia, eta "zas, zas eta zas" gari guztia instant batean bildu zuen. Langileek, behin eta berriz, eskatu zioten tresna harrigarri hura, eta diru saldoa eskaini zioten haren truke. Hark ere bere urrea hartu eta etxera bideratu zen, anaiak noiz etorriko.

Denbora pixka bat pasa zen, gero beste bat, eta anaia zaharrena etorri zen urrez beteta. Besarkada handi bat eman zioten elkarri eta gertatu zitzaien guztia kontatu ondoren, zain geratu ziren, berriz ere, falta zena noiz bueltatuko zen. Denbora luze bat pasa zen orduan, gero beste denbora bat eta arreba etorri zen, hura ere, urrez betea. Handik aurrera, pozik bizi izan ziren hirurak.

Hau dena egia da, berdaderoa; niri kontatu zidaten bezalaxe kontatu dizuet nik.